

MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

Gure enpresak bilatzen dituen bezeroak eskolak eta **hezkuntza-esparruak** dira batez ere; hau da, gazteei zuzendutako zerbitzu bat ematea da gure helburua, eta beraiengana gehiago hurbiltzeko beharrezkoa ikusten dugu ikastetxe, instituto edo unibertsitateekin lankidetzan.

Gaur egungo gaztediak ikasten ematen ditu asteko ordu gehienak, eta beraz ezinbestekoa iruditzen zaigu hezkuntza-sisteman gure ekarpenak egitea.

Bigarren Hezkuntza amaitu arte derrigorrezkoa denez eskolara joatea, gaian interesatuta egon daitezkeen gazte kopurua oso handia izan daiteke, batez ere adin horietan sexu-harreman edo sexualitatearen inguruko zalantzak izatea oso arrunta delako.

Hala ere, **udaletxe, erakunde edo bestelako gazte-antolakuntzek** gure zerbitzuak nahi izanez gero, zabaldua egongo ginateke beste zerbitzu horiek baloratzera eta bezeroen beharrak asetzen saiatuko ginateke. Beti ere, sexuari buruzko zalantzak edo kezkak dituzten gazteei bideratutako zerbitzua izango zen, horiek baitira etorkizuneko gizartea finkatuko dutenak.

Gure enpresaren xedea publikoa da eta segmentatutako merkatu baten eredia jarraituko du; esaterako, gazteengana heltzea da gure helburua, eta horretarako ezinbestekoa da gazte horiek dituzten behar eta eskakizun ezberdinak kontuan izatea. Heziketa sexualari garrantzia handia eman nahi diogu, eta eguneroko bizitzan izan dezakeen eragina ikasleek barneratzea bilatzen dugu.